

Agustin Zubikarai

Euskaldunon Egunkaria, 1992-10-27: 2.

Askotan entzun diot Agustin lagunari "beraiek" izan zirela gerratean, eta Juan Ajuriagerraren aginduz, *Eguna* izeneko lehenengo euskal egunkari idatzia sortu zutenak. Honetaz lehendabizi Agustin Zubikarai gazteari hitz egin ziona Esteban Urkiaga 'Lauaxeta' olerkaria izan zen: "Zeu nerekin...". Eusebio Erkiagak gauza bera entzungo zuen eta Imanol Enbeitak, Manuel Ziarzolo 'Abeletxe'k, J.M. Arizmendi-Arrietak eta Alejandro Mendizabalek. Hau zen bada taldea. Egunero irten eta zabaltzen zen dohainik, gehienbat frentean. Orain gaia aipatzen badut, Agustin Zubikarairi bere sorterrian, Ondarroan, Euskal Herri osoaren omenaldia eskeintzen ari direlako da. 1914eko, azaroak 3 zituela, jaio zen, datorren astean 78 urte. Seminarioan ikasia, goiz hasi zen idazten Bilboko *Euzkadin*, egunkarian, eta bertan argitaratu zioten bere lehen antzerkia: 'Aberriagaz bizi'. Gerrondoan lortu zuen lehen literatura saria 1950ean 'Itsasora' antzerkiarekin, Donostiako *Hegaren* argitaratua. Antzerkiak, ia ehunekoa egingo du laster. Hauxe opa diot neronek. Baina idazle on eta jori honek ez du antzerkia bakarrik idatzi. Ipuia ere goiz hasi zen idazten. 'Ederra jazo da zuen herrian' 1946an Donostia saria irabazi zuena. Elaberriak ere idatzi ditu 'Pinuetako madalenak', 1965ean Gipuzkoa saria... Hemen ez da gehiago kabitzen, eta gaurko gazteak errazago gogoan izango ditu bere azken denborakoak. Baina aspaldiko hauek gogora ekarri izan nahi ditut 78 urte betetzera dihoan honetan. Zorionak, Agustin.